

DONOSTIA UDALERRIKO KOSTALDERAKO BABES IZENDAPEN BERRIAK

Donostiako Udalerria kostaldean dago, hori dela eta bertan lur nahiz ur eremuak daude. Ur ingurune horietatik batzuk, ur gezakoak (ibai-sistema), ur gazi-gezakoak (Urumearen itsasadarra edo estuarioa) eta ur gazikoak (kostaldea) dira.

Lurrari eta ibaiei dagozkien giroak babestutako gunek edukitzeaz gain, orokorrean, hiritarren oniritzia dute eta natura aldetik interesa dutela onartzen da. Aitzitik, kostak nahiz itsas inguruak aisialdi eta natur baliabideen erabilera ikuspegitik soilik hartzen dira aintzat. Gainera, kontuan hartu behar da Gipuzkoan ez dagoela babestutako itsas metro karratu bakar bat bera ere.

Era berean, Donostia Udalerriak herritarren aisialdirako gunek dituzten parkeak interes publikoko leku izendatu ditu, beti ere, naturarekiko harreman zuzenari garrantzia emanaz. Haritzalde Naturzaleen Elkartean naturak interes publikoa duela uste dugu eta, ondorioz, Ondarretako marearteko zabalgunea (Harribilketa) eta Santa Klara uharteko itsaslabarrak herritarrentzako interes publikoko lehenengo **Hiriko Itsas-Parkea** izan daitezkeela uste dugu.

Halaber, Ondarretak eta Santa Klara irlak Donostiako Udalerriko edozein parkek adinako natur-balioa dutela uste dugu. Honela, hauei behar duten babesa eta izendapena eman beharko litzaieke (itsaski-bilketaren debekua, itsas fauna eta itsas floraren bilketarena, harrien bilketarena, ea.). Gainera, etorkizun hurbil batean, Donostiako Ingurumen Aholku Kontseiluak Eusko Jaurlaritzari proposaturiko **UMIHN** (Udalerri Mailako Interes Handiko Naturgunea) bezalako babes izendapen berriak onartu daitezke EAEn. Aipatutako **Hiriko Itsas-Parkea** izendapen berri hori jaso dezake bere baitan eta bermatu bide batez.

Bestetik, Uliako itsaslabarrak (Garrantzi Komunitarioko Lekuak) Natura 2000 Sarean sartzeko onartu dira. Haritzalde Naturzaleen Elkarteak ondorengoa proposatzen du:

- Batetik, Uliako babesgunea itsas ingurunera zabaltzea.
- Bestetik, Uliako parkea mendiaren hego magalera zabaltzea.
- Aipaturiko eremurako kudeketa plana ezartzea.

Babestu beharreko bi Natur Ingurune (**Hiriko Itsas-Parkea** eta **UMIHN**) berrientzat 50 metroko sakonera eta sakonera hori lortu arteko itsas luzeera babestu beharreko minimoa dela eta zabaldu daitekela deritzogu.

Hauek dira eskaera honen arrazoiak:

1. Agendako 21eko 17. kapituluak bereziki aipatzen duen bezala **mota guztietako itsaso eta ozeanoak babestu behar dira** eta aurreikuspen nahiz prebentzioan oinarrituriko **itsas-ingurune eta kostaren lurralde antolamendu eta garapenean ikuspuntu berriak** eskatzen ditu.
 - Itsas zein Kostaldeko antolaketa integratua eta garapen iraunkorra,
 - **Itsas-ingurunearen** babesa
 - Nazio mailan babesturiko itsas-bizidunen kontserbazioa eta itsasoko baliabideen ustiaketa iraunkorra.Programako arlo bakoitzeko helburuetan itsas-ingurunea babesteko beharra azpimarratzen da.
2. **EAEko Kostaldea Babesteko eta Antolatze Lurraldearen Arloko Planean** Donostiako Udalerrian aurki daitekeen itsasertza interes **nabarmena** duela irakurri daiteke (KBALAPko Txostenaren 94. orrialdean). Ondarretako Mareartea nahiz Santa Clara ugarteko itsaslabarrak eta era berean Uliakoak, **kontserbaziorako balio handiko gune**

gisa hartzen dira (KBALAPko 12. planu informatiboa). Gainera Antolaketa Mailaketan Bereziko Babes Zorrotza duten guneak izanik, KBALAPko Antolaketako 12. planuaren arabera.

3. Donostiako Udalerriko kostalde osoan ikerketa ugari egin dira (Haritzalde Agenda 21erako egin zuen “**Kostaldeko Egoeraren Diagnostia eta ingurumen adierazleak Donostiako Udalerrian**” Txostenean zerrendatuta), Ondarretako Mareartea gehienen helburua izanik. Ondorioz, Kostaldean bizi diren eta behatu diren espezieetako asko bertan aurkitu dira. Sailkatu dira florako 173 espezie eta 791 faunakoak, 964 espezie guztira. (Babes irudiren bat duten itsas zerrenda atxikitu da).
4. EIBE (Euskal Izurde eta Balezaleen Elkarte), Ulia eta Jaizkibelgo itsas-eremuan izurde mularraren presentziaren inguruko ikerketa burutzen ari da, Eusko Jaurlaritzak diruz lagunduta. Izurde mularra babestutako espeziea da eta Uliatik gertu aurkitzeak itsas-eremu horretarako babesa eskatuko luke. Hortaz, Donostiako Udalak gaiari tinko helduz kontserbazioa bultzatzea **Hiriko Itsas-Parkea** sortuz eta Eusko Jaurlaritzari Babesturiko Naturguneen Sarean sartzeko eskaera luzatuz.
5. APSAS Kirol Elkarteak Donostiako Udalak antolatzen duen UDA kanpainaren barruan **urpeko jarduerak eta itsas natura ikastaroak Ondarretan burutzen** 10 urte daramatza. Horien helburu nagusia naturaren errespetuan hezitzea izanik, gizartearen sentsibilizazioa bilatu du. Era berean, Haritzalde Naturzaleen Elkarteak **Itsas Natura Tailerra** bukatu berri du. Proiektua Eusko Jaurlaritzak babestu du eta ia bere osotasunean Ondarretako marearteko zabalgunean burutu da. Horrek erakusten du ere ingurumen heziketarako zonaldeak duen ahalmena.

Udan Ondarretako harri artean itsas naturaz gozaten ari diren familiak (aiton-amonak, gurasoak eta seme-alabak) ikustea ohikoa da. Hurrengo belaunaldiek guk ikusitakoa ezagutzeko aukera izan dezaten ezin bestekoa dugu gure ondare naturala behar bezala kontserbatzea. Hurbil gaitezen itsasora eta bizi dezagun kostaldea, baina beti ere orekan eta errespetuan.